AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

4938

EBAZPENA, 2011ko irailaren 20koa, Bulego Judizial eta Fiskalaren zuzendariarena, izendapen aske bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzan Justizia Auzitegi Nagusiko lehendakariaren laguntzailearen plaza (9003 lanpostua; 1. dotazioa) betetzeko deialdi publikoa egiteko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzan Justizia Auzitegi Nagusiko lehendakariaren laguntzailearen plaza, 9003 lanpostua, 1 dotazioa, hutsik dagoela-eta, Justizia Administrazioko Funtzionarioen Sarbiderako, Lanpostu Hornikuntzarako eta Lanbide Sustapenerako Arautegia onartu zuen 1451/2005 Errege Dekretuko (abenduaren 27ko BOE, 309. zk.) 57. artikuluak ezarritakoarekin bat etorriz, lanpostu hori izendapen aske bidez betetzeko deialdia egiten da. Justizia Auzitegi Nagusiko lehendakariari laguntzeko, zeregin hauek egin beharko dira lanpostu horretan: jurisprudentzia, azterlanak, doktrinak eta bestelako dokumentuak bildu, eta azterlanak, txostenak eta Justizia Auzitegi Nagusiko lehendakariak eskatutako proposamenak egin. Lanpostuaren izena, kokagunea eta ordainsariak agindu honen I. eranskinean zehazten dira. Hona hemen deialdiaren

OINARRIAK

Lehenengoa.– Parte hartu ahal izateko baldintzak.

Eskaerak aurkezteko epea bukatzen den unean zerbitzu aktiboan edo lanpostua gordetzea dakarren beste edozein egoeretan dauden Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko eta Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko karrerako funtzionarioek eska dezakete iragarritako lanpostua.

Bigarrena.– Eskaerak.

Interesdunek eskabideak aurkeztu beharko dituzte eta horietan datu pertsonalak eta betetzen ari diren lanpostua jarri beharko dituzte. Eskabideak aurkezteko, egutegiko hamar eguneko epea izango dute, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. BOEn eta EHAAn aldi berean argitaratu ezin bada, BOEn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da epea.

Eskabideak Bulego Judizial eta Fiskalaren zuzendariari zuzendu behar zaizkio eta Gasteiz, Donostia edo Bilboko EATetako sarrera-erregistroetan, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Saileko Erregistro Nagusian (Donostia kalea, 1, 01010, Gasteiz) edo indarrean dagoen administrazio-prozeduraren arautegiak ezarritako moduan aurkeztu behar dira.

Eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agirien eta alegatutako merezimenduen fotokopia konpultsatuez gain, datu hauek biltzen dituen «curriculum vitaea» ere aurkeztu behar da eskabidearekin batera:

a) Titulu akademikoak.

b) Betetako lanpostuak, bai administrazioan, bai enpresa pribatuetan.

c) Egindako ikasketak eta ikastaroak, argitaratutako lan zientifikoak, aurkeztutako ponentziak, menperatutako hizkuntzak eta hautagaiek alegatu beharrekotzat jotako gainontzeko merezimenduak.

Hirugarrena.– Ebazpena eta destinoa esleitzea.

1.– Deialdi hau Bulego Judizial eta Fiskalaren zuzendariaren Ebazpen bidez erabakiko da. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, gehienez bi hilabeteko epean, eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik hasita. Epea luzatu ahal izango da, salbuespenez, hilabete batez gehienez ere. BOEn eta EHAAn aldi berean argitaratu ezin bada, BOEn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da epea.

2.– Izendatutako funtzionarioa Justizia Administrazioko Funtzionarioen Sarbiderako, Lanpostu Hornikuntzarako eta Lanbide Sustapenerako Arautegiaren 52. artikuluan ezarritakoaren arabera jabetuko da lanpostu berriaz. Lanpostuaz jabetu aurretik, interesdunak fede emanez adierazi beharko du ez dagoela arautegian aurreikusitako bateraezintasun-kasuren batean.

3.– Izendatutakoa izendatu duen agintaritzak nahi duenean kargugabetu ahal izango du izendatutakoa. Hark ere lanpostuari uko egin ahal izango dio, betiere lanpostuan gutxienez urtebete egin badu, eta ukoaren arrazoi pertsonalak edo profesionalak jasotzen dituen eskabide arrazoitua aurkeztu beharko du horretarako. Kargugabetu den edo lanpostuari uko egin dion funtzionarioari –behin betiko lanpostua lortu bitartean– behin-behineko lanpostua emango zaio kidego eta udalerri berberetan, eta kargugabetzea edo uko egitea onartzen den ebazpenaren hurrengo egunetik aurrerako ondorioekin. Kargugabetu den edo lanpostuari uko egin dion funtzionario horrek lehentasunezko eskubidea izango du lanpostua uzten duen udalerri bereko lanpostu orokorrak hartzeko, haien lehiaketarako deia egiten den lehen aldian, eta bertan deitzen diren lanpostu guztietarako eskaera egin beharko du. Lehiaketa horretan parte hartu ezean, edo eskatutako lanpostuetako bat ere lortzen ez badu, esleitu ez diren lanpostuetako edozein esleituko zaio behin betiko.

Laugarrena.– Errekurtsoak.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen; haren aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Justiziako sailburuordeari, hilabeteko epean, Estatuko Aldizkaria Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Gora jotzeko errekurtsoa jarri denetik hiru hilabete pasatzen badira eta erantzunik jaso ez bada, errekurtsoa ezetsi egin dela ulertuko da; hala, administrazioarekiko auzibidea geratuko da libre.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko irailaren 20a.

Bulego Judizial eta Fiskalaren zuzendaria,
ROSA GÓMEZ ÁLVAREZ.

I. ERANSKINA

DEIALDIKO LANPOSTUA:

Saila: **Justizia eta Herri Administrazioa**.
Zentro kudeatzailea: **Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritza.**
Destinoko zentroa: **Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritza.**

Destinoko herria	Izena	Lanpostua	Dotazioa	Taldea	Eskarmentua	Berariazko osagarria	Kidegoa	Titulazio akademikoa
Bilbao	JANeko lehendakariaren laguntzailea	9003	1	B C	3 urte	6863,69	Prozesu eta Administrazio Izapidetzea	Diplomatura